

“Herria” astekariaren zuzendari bezala egiten ari den lan bikaina ere agerraraziz. Zure merezimenduak ikusirik pentsatu dute euskaltzainek euskararen bultzatzeko eta zaintzeko gai zirela, aitortu du Haritschelhar jaunak.

Ondorean, Emile Larre jaunak, euskaltzain agiria hartu du Luis Villasante Euskaltzainburuaren eskutik. Eta, Piarres Lafitte jaunak, “Herria” astekariko lagunen izenean eskualdun makila emanen dio.

Bukatzeko, Ifar Euskal Herriko euskaltzain laguntzaile berriei agiriak eman zaizkie: Gexan Alfaro “Lantziri” (bere ezin etorria agertu du), Manex Goihenetxe eta Ramuntxo Kanblong.

Batzarra bukatzean anaiarteko bazkariak jarraitu du trinkete berean.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN

1975-X-31

Donostian, Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1975eko urriaren 31an, arratsaldeko lauretan, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordezko, A. Arrue, A. Irigoyen, P. Lafitte euskaltzain jaunak; P. Altuna, J. M. Aranalde, M. Atxaga, J. Fdz. Setien, J. Garmendia Larrañaga, J. Goikoetxea Maiza, J. A. Irigaray, F. Ixurko, E. Knörr, J. A. Letamendia, J. L. Lizundia, X. Mendiguren, J. Zaitegi, A. Zatarain, J. J. Zearreta eta J. M. Zumalabe laguntzaile jaunak, J. San Martin idazkari dela.

Dassance, Davant, Diharce, Irigaray, Larre, Larzabal, Lojendio, Satrustegi, Zavala eta Oregi jaunek ezin etorria adiarazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Uztaileko, abuztuko eta iraileko batzar agiriak onhartu dira.

Ixurko jaunari laguntzaile agiria eman zaio.

a) *Har-emanak:*

Azaroaren 30ean J. Eguzkitza euskaltzain zenaren ome-nezko bilera izanen da Bizkaiko Lemoan, bere jaiotzaren ehungarren urtea betetzen denez. Herri meza, E. Erkiaga eta S. Onaindia jaunen hitzaldi laburrak, oroitarria jartzea eta bazkaria izanen dira.

Aurtengo "Xenpelar" izeneko bertso paperen saria, era honetara banatu da: Lehen saria, Fernando Aire "Xalbador"i. "Ortzirale saindu bateko Gogoetak eta Otoitza" deritzan bertso sailagatik; bigarrena, bi zatitan banatzen da; Inozentzio Oleari "Pelota eta pelota jokua" eta Jose Aierberi "Bein berrogei urtetik gorako kontuak" bertso sailegatik; eta hirugarrena ere bitan zatitua, Manuel Matxaini "Pobreak eta aberatsak" eta Heletako Mendiboureri "Gure atean nigarrez" bertso sailegatik. Fernando Artola, Juan Mari Lekuona, Jose Maria Aranalde eta Antonio Zavala jaunek osatu dute epai-mahaia.

Aurtengo "Txomin Agirre" izeneko eleberri saria, huts-ean uztea erabaki da. Epai-mahaia osatu dutenak, E. Erkiaga, I. Sarasola eta M. Zarate jaunak.

Arabako Diputazio eta Okendo eta Aiherrako udaletxeei eskerrak ematea erabaki da, gure batzar irekietarako eman ziguten laguntzagatik.

J. Haritschelhar jaunak aditzera ematen digunez, Jean Barbierren ehunurteburua ospatzeko Donibane Garazin antolatuko dutela oroitzapenezko emenaldia, abenduaren 21ean, eta hori dela-ta Euskaltzaindiak batzar ireki bat egitea proposatu du. Ontzat hartu da.

Azaroaren 2an Karmelo Etxegara euskaltzain zenaren mende-erdia ospatuko da Azpeitian eta Euskaltzaindikoak komitaturik gaude.

Urte Saindua dela eta L. Villasante euskaltzainburu jauna Erroman izana da, eta EUSKERA aldizkariaren lau ale eraman zizkion Aita Sainduari eskuerautsi bezala. Esker ona agertuz, nunzio jaunaren bitartez eta Añoberos apezpiku jaunaren bidez, eskerrak emanez gutun bat hartu da.

P. Lafitte eta J. Haritschelhar jaunek Aita Xabier Diharce euskaltzainaren aitaren hilberria eman dute. Doluminak agertzea erabaki da.

Hartu diren liburuak:

Donostiako Apezpikute giko Liturgi Batzordeko Etkezarr eta jaunak bidaliak: *Mezaren egunerokoa; Traducción de los prefacios del Misal Romano - Sagara-aurreko deiak; Praefationes. Canon Missae. Variationes pro Diversitate Temporum; Santuen Betiko Mezak; Eguneroko Mezak* Ilbelta-Otsaila, Epaila-Jorraila, Apirila, Mayatza, Mayatza II, Garragarrila, Uztaila, Dagonilla, Agorra, Urrilla, Azaroa eta Abendua; *Abenduko Aroa; Abendu eta Eguberi Aldia; Liturgia de la Semana Santa; Garizuma; Pazko-Gaua, Aldareko Liburua; Pazko-Astea; Pazko Garaia; Pentekoste Astea; udazkeneko Aroa; Ildakoen Méza; Eskontzako Meza; Jaiegunetako Irakurgaiak, "B" urtea-1; Jaiegunetako Irakurgaiak, "A" urtea-2; Astegunetako Irakurgaiak, 2; Meza Santua, edición bilingüe Euskera-Catellano; Ileta-Kantak; Gora Jainkoa; Bataioa; Penitentzia Ritu-liburua Berritik ospatzeko Arauak, edición bilingüe. Garizuma, 1975; Ezkontzako Sakramentua; Sacramento del Matrimonio-Ezkontza Sakramentua; Iletak; Ibili Jesusekin Gabiltza (Katekesi idazkaritza, Katalunia-Donostia); Erljio Senaren Esnaera (Jose Chumillas); Kristau Ikasbidea (Bi ale); Kristau Ikasbidea-1 (Fitxak) Kristau Ikasbidea (Katekesi Idazkaritza Iruine-Donostia) Kristau Ikasbidea (Katekesi Idazkaritza lanerako orriak-Donostia); Kristau Ikasbidea-2 (Bi ale); Kristau Ikasbidea lanerako orriak-Donostia; Kristau Ikasbidea-4 (Bi ale); Kristau Ikasbidea-4; Kristau Ikasbidea, E. G. B.-4. Maila (Jose Chumillas); Kristau Ikasbidea-4, Irakasleentzat lagungarriak (Iruña-Donostia); Kristau Ikasbidea-5; Kristau Ikasbidea, E. G. B.-5. Maila ikasleentzat txartelak (Jose Chumillas); Gotzai mintzaldia; Seminarioari eta apaiz-bokazioei; Kristau-jarrerak Ekonomi egoeraren aurrean; Sekularra Elizan (Bilingüe) Pastoralak; Gotzai-Sagaratzea; Fedea Biotz-Berritzea Paketzea (Bilingüe); Gure giza eta kristau izakera Jesukristorenganako sinismenaren argitan, Gotzai Deiak; Iparragirre, Jaxinto F. Setien-ek egina eta Gordailuk emana; Janariak, Antton Amondarain-ek egina eta Gordailuk emana; Arrantza, Iñaki Zulaikak egina eta Gordailuk emana; Goiherri, Jaxinto F. Setien-ek egina eta Gordailuk emana; Esperientziak, Begoña Azpiroz, Gordailuk emana; Gutun Liburua, Jose Paulo Ulibarri, Arabako Diputazioako Consejo de Cultura-k emana; Ontsa Hiltzeko Bidea Andolin Eguzkitza-k prestatua, eta Jakinek emana; Ipu An-*

tzeko, Mikel Zaratek egina eta GEROK bidalia; *Jose Paulo Ulibarri*, Daniel Ibargoitik egina eta Gordailuk emana; *Ecos del Valle*, (Jose Paulo Ulibarriri dedikatua) Okondoko Parrokia-ren Aldizkaria; *La elegia vasca de Juan de Amendux* (1564) Fontes-en separata Jose Mari Satrustegi-rena, berak emana; *Lazkaoko Beneditarren liburutegia*, Euskal eta beste liburu zaharren erakusketaren zerrenda-Lazkao, 1975, Dionisio Amundarainek emana; *Caja de Ahorros Vizcaina*, 1974eko Memoria; *Chomsky*, John Lyons-ek egina eta Durangoko Club Juvenil-ek emana; *Gizartea eta Parasozialismoa* Luis Mari Mujika, GEROK emana; *Escuela Profesional Politécnica de Mondragón*, Memoria 1974, Jose Maria Arizmendiarrietak bidalia; *Correspondencia de Juan Ygnacio de Iztueta y Jose Pablo de Ulibarri Galindez* (Donostian, BRSVAP-etik Separata) Nikolas Alzolak emana; *La Mentalidad Popular Vasca, según Resurrección M.^a Azkue*, Juan Thalamas Labandibar-ena, berak bidalia (Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones-ek argitaratua).

Oharra: Aurrerantzean, liburu zerrenda, egile, titulu, neurri, orrialde eta abar, fitxa osatuaren zerrenda, aparte ematea erabaki da.

Arabako Diputazioaren "Consejo de Cultura" k eman digun Ulibarriren *Gutunliburua* delakoari buruz, E. Knörr jaunak aditzera eman digu, honen ondorean edizio kritiko bat egiteko asmoa dutela, eta Gamiz-en lanekin ere beste horrenbeste egin nahi dutela.

b) *Aditz batzordearen lanak:*

Patxi Altuna jaunak, batzordearen idazkari bezala, aditz sintetikoaren egungo egoeraren berri eman du, aurkitzen diren desberdintasunak finkatzeko, euskaltzain eta batzordekoen artean zerrendak zabaldu dira, azter dezaten. Eguberrietan Mitxelena jauna hemendik izango denez, orduan dela aukera batzarrak egiteko.

d) *Goizeko bilkuraren berri:*

Batzorde berriztatze erabakiak hartu dira lehendik zirenen eskariz. Gasteizen, ordezkari buru, Peli Martín jauna, eta idazkari, E. Knörr jauna, eta bulego lanetan laguntzeko neska bat. Donostiako ordezkari zuzen ere jardun zen, bi atal

izango ditu, bata harremanetarakoa, buru eta idazkari batekin eta bestea hiztegi eta hizkuntza lanetarakoa, hemen behintzat lehengo batzordekoak sartuaz. Harremanen ataleko buru A. Arrue izendatzea pentsatu da, idazkaria eta hiztegi eta hizkuntz atalerako gehitu daitezkeenak hurrengo batean proposatzeko utziaz.

Aditz Batuaren batzorderako, kontseilari bezala, G. Epheerre eta G. Aresti zirenen hutsunea betetzeko, J. L. Davant eta A. Irigoyen jaunak izendatzen dira.

Irakasle tituluak emateaz, euskaltzainburuak txostena irakurri du, gure egoera kontuan izanik eginkizun honen beharra azalduaz mahaiburua handitzea proposatuaz. Eta, aurrerakoan, hauek izendatzen dira: A. Irigoyen buru, P. Altuna, X. Kintana, J. A. Letamendia, E. Knörr, Jestio konturako, J. J. Zearreta, eta tokian tokizko laguntzaile I. Laspiur, X. Mendiguren, J. Atxa eta M. Goihenetxe, laguntzaile batzorde honetan beste norbait sartzeari hurrengo batzarrerako, uzten da.

Irakasle titulua ateratzeko etsaminak urtean bitan izango dira, uztailan eta irailean, edo gehienez ere hirutan, otsailekoa gehituaz beste bietan atera ez dutenentzat.

Heldu den urtean Bilintxen heriotzaren ehunurteburua denez, Donostiako Aurrezki Kutxak bere omenaldia antolatu nahi du eta Euskaltzaindiaren babesa eta antolakizunetarako laguntza eskatu digu A. Zavala euskaltzain jaunaren bidez. Onhartua izan da gure babespean hartzea, eta bertsolari batzordea izendatzen da antolatzaile.

X. Mendigurenek irakaskintza liburuetakoa euskararen desberdintasuna agertu du, zenbait adibide idatziaz emanez. Nolabait bideratu beharra agertu du.

e) *Gramatika-gaiak. Esakune batzuen azterketan lehen-urratsak:*

J. Oregi jaunaren txostena. Azken orduan, autoaren aberia bategatik etorri ezina agertu duenez, L. Villasante euskaltzainburu jaunak irakurri du bere txostena. Mitxelena jaunak uztailleko batzarrean irakurri zuen txostenari erantzunez, gramatikazko azterketa dakar, *sujeto* eta *predicado* direlakoaren adierazpenez, lehen urrats gisa. Predikadoa duten esakunetan, aditza dala predikado osoaren guna, agerraraz-

ten du bere lehen partean. "Gizonak gizona dakar" aztertzen du bere bigarren partean; esakune buruan izen nahiz izenordenen bat baldin badago, esakuneren guna horixen dela agertuz. Era honetara eskaintzen dizkigu, adibide zehatzez, bere gaiari hildoz jarraituaz. Bere txostena, esakune-mota bakar baten azterketarako lehen urratsa besterik ez duela agertzen, aditzera ematen digu; baina gai hontaz azterketa sakonagoen premia adierazten du.

f) *Gorputz aurtikinak:*

P. Larzabal jaunaren txostena, J. Haritschelhar jaunak irakurria. Lan honetan, gorputzaren berezko aurtikinak hitzez hitz agertzen ditu, azazkal, izerdi, ile eta hauen inguru erabiltzen diren esakerak, gure hiztegi eta oraindik egiteke den ideiazko hiztegian jasotzeko premiazkoak. Gainerako aurtikinak ere aipatzen ditu, beren inguru erabiltzen diren esaerak bilduaz, beharri-begitatik, aho-sudurratik, poker, xotin, urtzintz, ziztu, hatsa, esnea, kaka, pixa, setsualak, e.a. guziaz humore berezi batekin adiaraziaz.

g) *Bakoitzak dakarrenetik:*

A. Irigoyen jaunak, oraintsu testu zaharretan aurkitu duen artikulua eraren berri eman du, esanaz: -o gradu urbileko artikulua singularraren dokumentazio historikoa eta oraingoa, zenbait erdaldunek inoiz kasu bereziren batzuetan, grada galdutako -a artikulua erekin batera, maskulinozko bezala bata eta femenizko bestea erabili izan baitzuten.

Ohi den otoitzarekin bukatu da batzarra.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN